


# 2020

## etxeparesaria.eus




### ETXEPARE SARIA 2020 haurrentzako albumak sortzeko

1. Haurrei zuzenduriko album ilustratuak aurkeztu ahal izanen dira sari honetara. Album ilustratu bezala ulertzen dira testua eta irudia elkarren osagarri dituzten lanak.
2. Lanak euskaraz idatziak, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izanen dira. Ez da onartuko beste inondik moldatutako lanik, ezta aurretik saririk jaso duenik ere.
3. Lehiaketan honela parte hartu daiteke: bakarka edo idazle eta ilustratzaileek osatutako taldean. Egileek nahi beste lan aurkez ditzakete.
4. Formatua librea da, baina lanak ez dira 20 cm x 21cm baino txikiagoak izanen, eta gutxienez 15 orrialde bikoitz izanen dituzte (bakarrik kontuan hartuko dira barneko orrialdeak). Testuek ez dituzte 4.000 karaktere baino gehiago edukiko (zuriuneak barne).
5. Sari hau azken lau deialdietako batean jaso duten idazleen edo ilustratzaileen lanak alde batera utziko dira, nahiz eta arestian aipatutako baldintzak bete.
6. Lehiaketan parte hartzen duten egileek albumaren maketa aurkeztu beharko dute, hau da, azken bertsioa inprimatuta, bukatutako albumean agertuko liratekeen testu zein ilustrazioekin. Ez da maketa koadernatu beharrik, nahikoa da maketa modu xume batez jostearekin (grapekin, uztaiekin, espiralarekin, etab.). Horretaz gain, maketaren kopia bat bidali beharko dute: pdf formatuan, lan osoa fitxategi bakarrean. Kopia pendrive batean entregatuko dute (aholkatzen da fitxategiek ez izatea 10 mega baino gehiago). Albumaren testua ere aurkeztu beharko dute, Word formatuan (pendrivean sartu beharko dute). Egileek nahi badute, irudi originalak bidali ditzakete epaimahaikideek jatorrizko lana ikus dezaten.
7. Lanak izengoitiaz izenpeturik egongo dira. Lanarekin batera gutun-azal itxi bat aurkeztuko da, kanpoko aldean lanaren titulua eta egilearen goitizena izango dituen eta barruan egilea edo egileen datuak: izen-abizenak, helbidea, telefona, helbide elektronikoa, NANaren edota pasaportearen fotokopia eta egilearen aipamen bio-bibliografikoa.
8. Lanak helbide honetara bidaliko dira: ETXEPARE SARIA, Leitzako Udala-Euskara Zerbitzua, Elbarren 1, 31880 Leizta (Nafarroa).



### PREMIO ETXEPARE SARIA 2020 PARA LA CREACIÓN DE ÁLBUMS INFANTILES

1. A este premio se presentarán álbumes ilustrados dirigidos a niños y niñas. Por álbum ilustrado se entiende aquella obra que contiene imágenes y texto complementario.
2. Las obras deberán estar escritas en euskera, ser originales y no publicadas. No se admitirán adaptaciones realizadas de cualquier otra obra, ni las que hayan recibido algún premio anteriormente.
3. En el certamen se puede tomar parte individualmente, o en grupo formado por escritor/a e ilustrador/a, que podrán presentar tantas obras como estimen oportuno.
4. El formato de las obras es libre, pero no serán más pequeñas que 20 cm x 21 cm, y tendrán, como mínimo, 15 páginas dobles (se tendrán en cuenta sólo las páginas interiores). Los textos no tendrán una extensión superior a 4.000 caracteres (incluidos espacios en blanco).
5. Las obras de los/las autores/as que hayan sido premiadas en alguna de las cuatro últimas ediciones se descartarán, aunque cumplan con los requisitos detallados anteriormente.
6. Los/las autores/as que participen en el certamen deberán presentar la maqueta del álbum; es decir, la última versión impresa, con imágenes y textos que se publicarían en el álbum final. No hace falta encuadernar la maqueta, es suficiente unirlo de forma sencilla (grapas, anillas, espiral, etc.).  
  
Además, hay que enviar una copia de la maqueta: en formato pdf, toda la obra en un solo fichero. La copia se entregará en un pendrive (se recomienda que el fichero no exceda de 10 megas).
7. Las obras estarán firmadas con un seudónimo. Junto con la obra se presentará un sobre cerrado, en la parte exterior del mismo aparecerá el título de la obra y el seudónimo del autor/a y en el interior los datos del autor/a o autores: nombre y apellidos, dirección, teléfono, dirección electrónica, fotocopia del DNI o pasaporte y una reseña bio-bibliográfica del autor/a.
8. Las obras se enviarán a la siguiente dirección: ETXEPARE SARIA, Leitzako Udala - Euskara Zerbitzua, Elbarren 1, 31880 Leizta (Nafarroa).



# 2020

## etxeparesaria.eus



9. **Originalak aurkezteko epea 2020ko maiatzaren 8an, ostiralean, itxiko da.** Epaimahaiak erabakia hartzeko azken eguna 2020ko ekainaren 30a izanen da.
10. Epaimahaia haur literaturan eta ilustrazioan adituak diren pertsonak osatuko dute, eta udal eta mankomunitate antolatzaileek izendatuko dute. Udal eta mankomunitate antolatzaileetako teknikari batek idazkari lanak egingen ditu (hitza izanen du, baina ez botorik). Pamielak izendatutako pertsonak egon daitezke epaimahaiak egiten dituen bilkuretan (hitza izanen dute, baina ez botorik). Ez da saririk emanen epaimahaiaren iritziz gutxieneko kalitateko lanik ez badago. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da.
11. Sari bakarra emango da, 5.000 eurokoa, egile eskubideen aurrerapen moduan. Zergen atxikipena indarrean dagoen legediari jarraiki egingen da.
12. Saritutako lana Pamiela argitaletxeak argitaratuko du euskaraz, eta argitalpenean Etxepare sariaren aipamena egingen da.
13. Saria eman eta hilabeteko epean originalak itzuliko zaizkio eskatzen dituenari. Epe hori igarota, eskatzen ez diren lanak suntsitu egingo dira. Denbora tarte horretan argitaletxeren batek aurkeztutako lanak ikusi nahi baditu, baimena eskatu beharko zaio aldeaz aurretik egileari.
14. Oinarri hauetan zehaztu gabeko zalantzaren bat agertzen bada, epaimahaiak argituko du eta hark egiten ez badu udal eta mankomunitate antolatzaileek erabakiko dute. Sari honetan parte hartzeak oinarri hauek ezagutzea eta onartzea dakar.

**Antolatzaileak:** Etxepare saria Nafarroako 22 toki entitatek, haien euskara zerbitzuen bidez, antolatzen dute. Hona zerrenda:

Agoizko Udala	Ayuntamiento de Aóiz
Antsoaingo Udala	Ayuntamiento de Ansoáin
Atarrabiako Udala	Ayuntamiento de Villava
Barañaingo Udala	Ayuntamiento de Barañáin
Baztango Udala	Ayuntamiento de Baztan
Berriobeitiko Udala	Ayuntamiento de Berrioplano
Berriozarko Udala	Ayuntamiento de Berriozar
Bortzirietako Euskara Mank.	Mancom. de Euskera de Bortziriak
Burlatako Udala	Ayuntamiento de Burlada
Esteribarko Udala	Ayuntamiento de Esteribar
Galar Zendeako Udala	Ayuntamiento de Cendea de Galar
Garesko Udala	Ayuntamiento de Puente la Reina

**Laguntzaileak:** Pamiela argitaletxea eta Galtzagorri elkartea.  
**Babeslea:** Nafarroako Gobernua – Euskarabidea.

9. **El plazo de presentación de los originales se cerrará el 8 de mayo de 2020.** El último día para que el jurado dicte su fallo será el 30 de junio de 2020.
10. El jurado estará formado por personas expertas en literatura infantil y en ilustración, y serán nombradas por las entidades locales organizadoras. Un/a técnico/a de las entidades locales organizadoras realizará la labor de secretario/a (tendrá voz, pero no voto). Las personas designadas por Pamiela podrán estar en las reuniones que realice el jurado (tendrán voz, pero no voto). El premio quedará desierto en el caso de que en opinión del jurado no haya obras con una mínima calidad. El fallo del jurado será inapelable.
11. Se otorgará un solo premio de 5.000 euros, a modo de adelanto de derechos de autor/a. La retención fiscal se realizará de acuerdo a la legislación vigente.
12. La editorial Pamiela publicará en euskera la obra premiada, y en la publicación se hará mención del Premio Etxepare (Etxepare saria).
13. Las obras no premiadas serán devueltas a los autores/as que así lo soliciten en el plazo de un mes a partir de la comunicación del fallo. Una vez transcurrido ese plazo, las obras no solicitadas se destruirán. En caso de que, en este período de tiempo, una editorial desee ver alguna de las obras presentadas, será necesario solicitar permiso a la autor/a.
14. En caso de duda no especificada en estas bases, el jurado la resolverá y, si éste no lo hace, la resolverán las entidades locales organizadoras del certamen. Participar en este premio supone el conocimiento y aceptación de estas bases.

**Organizadores:** El Premio Etxepare lo organizan 22 entidades locales de Navarra, a través de sus servicios de euskera. La relación de ellas es la siguiente:

Irantzu Mankomunitatea	Mancomunidad de Irantzu
Iruñeko Udala	Ayuntamiento de Pamplona
Nafarroako Iparraldeko Euskara Mank.	Mancom. de Euskera del Norte de Navarra
Lizarrako Udala	Ayuntamiento de Estella
Malerrekako Mankomunitatea	Mancomunidad de Malerreka
Sakanako Mankomunitatea	Mancomunidad de Sakana
Tafallako Udala	Ayuntamiento de Tafalla
Uharteko Udala	Ayuntamiento de Huarte
Zaraitzu eta Eronkariko Batzorde Nagusiak	Juntas Generales de Salazar y Roncal
Zizur Nagusiko Udalaren Kultur Patronatua	Patronato de Cultura del Ayuntamiento de Zizur Mayor

**Colaboran:** Editorial Pamiela y Galtzagorri Elkartea.

**Patrocina:** Gobierno de Navarra – Instituto Navarro del Euskera.